



Osasuna Politika Guztietan

BATZORDE TEKNIKOA



Txosten
sektoriala **2019**

Gazteria

2021eko martxoa



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Dokumentu honetan zehazten diren osasunaren arloko alderdiekin lotutako jarduerak Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren (2018-2021) egituran eta horren urteko programazio eta ebaluazio-txostenetan oinarrituta jaso dira. Txosten horietan, administrazio honetako beste zuzendaritza, sail eta erakunde batzuek gauzatzen dituzten gazteria eta osasun-arloko beste politika batzuk ere xehatzen dira.

Martxoaren 10ean, **Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren Sailarteko Batzordearen** bilera egin zen, **Gazte Planaren 2020rako Plan Operatiboa** aurkezteko, Eusko Jaurlaritzaren gazte-politiken 2020rako programazioa. Batzorde hori Eusko Jaurlaritzako sailletako sailburuordeek osatzen dute. 2020rako Plan Operatiboan xehe-xehe jasotzen dira IV. Gazte Planak osasunaren arloan jasotzen dituen helburu estrategikoei eta jardueraildoei erantzuten dieten Eusko Jaurlaritzaren gazte-politika guztiak, bai eta intereseko beste arlo batzuei dagozkien beste jarduera batzuk ere. Informazio hori Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean dago eskuragarri¹.

Gure kasuan, Gazteria Zuzendaritzak Osasun Planarekin lotuta garatzen duen jarduera **Gazteen Euskal Behatokian** biltzen da, Bilbon duen egoitzan; bertan, prestakuntza, azterketa eta ikerketa-ikastaroak egiten dituzte, eta gazte-adierazleak eguneratuta dituzte beren sisteman. Gazte-jarduerak eta gazte-politikak txosten honetan zehazten dira.

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren (2018-2021) egiturak ardatzak, arloak, helburu estrategikoak, jarduera-ildoak eta lehentasunezko ekimenak biltzen ditu.

Euskadiko gazteen osasun-diagnostikoa oinarri hartuta, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planean Euskadiko gazteen osasuna hobetzeko ardatz espezifiko bat ezarri da. Ardatz horri "Ongizatea eta Bizimodu Osasungarria" izena eman zaio, eta 4 helburu estrategiko ditu. Horietatik 10 jarduera-ildo erartortzen dira, eta horiei lotuta daude Eusko Jaurlaritzako sailletan planifikatzen diren jarduerak.

¹ **Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana:**

2020: 2020rako Plan Operatiboa.

https://www.gazteukera.euskadi.eus/r58-ovjmenu4/es/contenidos/informacion/gazte_politikak_emancipacion/es_gazte/index.shtm#programacion

ARDATZA	ARLOA	HELBURUA	ILDOA
Ongizatea eta bizitza osasungarria	Osasuna	Gazteen osasun mentala eta emozionala hobetzea	Ongizaterako eta osasun mentalerako hezkuntza
			Aisialdi osasungarriko jarduerak sustatzea
			Antsietate- eta depresio-egoeren arloko arreta eta prebentzioa
		Gazteen artean gehiegizko pisua eta obesitatea murriztea	Elikadura osasungarria sustatzea
			Gazteen artean jarduera fisikoa eta ariketa sustatzea
		Gazteen artean bizitza sexual osasuntsua bultzatzea	Hezkuntza afektibo-sexuala
			Sexu-transmisio bidezko gaixotasunen prebentzioa
			Tabakoaren eta alkoholaren kontsumoa murriztea
		Gazteen artean arrisku-portaerak eta/edo mendekotasunak (substanziarik gabekoak) prebenitzea	Jokoarekin / sare sozialekin lotzen diren arriskuen arloko sentsibilizazioa eta prebentzioa
			Trafiko-istripuen arloko sentsibilizazioa eta prebentzioa

4. #gazteplana#

EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO

GAZTERIA ZUZENDARITZAREN 2019KO EKINTZAK

Gazteen Euskal Behatokiak gazteen osasun egoeraren jarraipena egiteko adierazleak mantendu ditu. Behatokiaren gazte-adierazleen sistemak **16 adierazle ditu osasunaren arloan**. Adierazle horiek oinarri gisa erabili dira "Gazteen egoeraren 2019ko diagnostikoa" argitaratzeko, eta "Euskadiko gazteen 2019ko panoramika" estatistika-eragiketa ofizialean jaso dira.

57. Osasun txarraren prebalentzia
58. Osasun arazo kronikoen prebalentzia
59. Antsietate eta/edo depresio arazoen prebalentzia
60. Obesitate-tasa
61. Jarduera fisikoa
62. Ohiko tabako kontsumoa
63. Gehiegizko alkohol kontsumoa
64. Ohiko kalamu kontsumoa
65. Droga-mendekotasunen tratamenduaren hasiera
66. Interneten erabilera problematikoa
67. Nerabeen arteko haurdunaldi-tasa
68. Haurdunaldiaren borondatezko eteteak
69. Sexu-harreman arriskutsuak
70. GIBagatiko infekzio berriak
71. Suizidioagatiko heriotza-tasa
72. Trafikoaren ondoriozko heriotza-tasa

Gazteen Euskal Behatokiak 12 prestakuntza-ikastaro egin ditu 2019an, bere urteko prestakuntza-planaren barruan, eta osasunaren sustapenarekin lotutako tresnez hornitu ditu gazteekin eta nerabeekin lan egiten dutenak. Ikastaro horietan gazteen esparruarekin lotutako 263 profesionalak hartu dute parte. Ikastaro horietan parte hartu duten pertsonen batez besteko balorazioa 8,7koa izan da, 0tik 10era bitarteko eskalan. 2019an gai hauek jorratu dira:

- “Gizon nerabeekin berdintasun eta maskulinitatearen gaineko lana egiteko tresna pedagogikoak” (bi edizio).
- “Aniztasun sexualaren arretan sakonduz: agerien jartzea eta sustapena” (bi edizio).
- “Gazteak eta teknologia: tsunami digitala surfeatzen” (bi edizio).
- “3.0 erotika: zibersexua, sexting-a eta intimitatea pornografia bihurtzea nerabezeroan”.
- “Gazteekin indarkeria matxista prebenitzeko estrategiak” (bi edizio).
- “Substantziarik gabeko mendekotasunen prebentzioa: on-line jokoak eta kirol apustuak” (bi edizio).

Gainera, beste prestakuntza-ikastaro bat egin da, gazteen parte-hartzea, asoziazionismoa eta boluntariora sustatzeko. ‘EUROPAKO ELKARTASUN KIDEGOA Ikasi nahi duzu laguntzen duzun bitartean? Lagundu nahi duzu zure konpetentziak eta trebetasunak garatzen dituzun bitartean? Izeneko ikastaroan gazteekin lan egiten duten erakundeetako 17 lagunek hartu zuten parte.

2020KO EKINTZEN PLANGINTZA

2020. urtean, gazteekin lan egiten duten eragileei zuzendutako **prestakuntza-ikastaro** hauek aurreikusi ditu Behatokiak:

- “Dibertsitate funtzionala (desgaitasuna) duten pertsonak gazteei zuzendutako jarduera, programa eta zerbitzuetan sartzeara”. 2020ko otsailak 6, 13 eta 20.
- “Indarkeria matxista eta gazteria: prebentzio pilulak” (hiru edizio), martxoak 2 eta 9, martxoak 3 eta 10, eta martxoak 6 eta 13.
- “On-line jokoak, kirol apustuak, sare sozialak, ... Adizioak edo kondaira?”. Apirilak 22 eta 29, eta maiatzak 6.
- “Segurtasuna azken teknologien erabileran”. Irailak 22 eta 29, eta urriak 6.
- “Sexu-hezkuntza: kalitateko harremanen aldeko apustua” urriak 14, 21 eta 28.
- “3.0 erotika: zibersexua, sexting-a eta intimitatea pornografia bihurtzea nerabezeroan”, urriak 22 eta 29, eta azaroak 5.
- “Mutil nerabeekin emakumeenganako indarkeriaren inguruko gaiak nola landu” (bi edizio). Azaroak 18 eta 25, eta azaroak 19 eta 26.

Halaber, **osasan-adierazleak** eguneratuko dira, eta “gazteen egoeraren 2020ko diagnostikoa” egingo da, osasunarekin lotutako datuak jasotzeko.